

www.noaua.com

Noaua !!



Fruta eta barazkiei buruzko erreportajea



Igande honetan,
Santo Tomas azoka

LIZARDI LIBURVENDENAK

Gaburteko opariak



Liburuak, aldizkariak, musika,
enkuademazioak eta fax zerbitzua

Etxabeste Kalea 1
943 301 118

www.noaua.com
usurbildarron zerbitzura



ERRAUSKETARIK EZ
LUPRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK



Hator, hator...

Alkartasuna

Ekartea Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@ekarte.com
Ugarte Indus Erialdea 12
943 361 114

Barboina



Alkartasuna kooperatibaren produktuak



Puzko loreak



Zaku zeta



Gasazink



Gasazink



Albisteak iruditan !!

Abenduaren 18an, Sutegin, Gabonetako kontzertua Zumarteren eskutik

Eguberrien atarian gaudela igartzen hasiak gara. Gabonetako ohiturak berritzeko garaia da, beraz. Batzuk hasi dira gabon eskeak prestatzeko entseguekin. Zumarte Musika Eskolakoak ez dira atzean geratu. Eguberrietako kantuekin osatutako errepertorioa eskainiko baitute datoren asteartean, abenduak 18, Sutegiko auditorioan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko den saioan, Zumarte Musika Eskolako hiru abesbatzak entzuteko aukera izango dugu.



ARRATSALDEKO 19:00ETAN HASIKO DA KONZERTUA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieto, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

UDAL AURREKONTUAK HIZPIDE _____ **5. OR.**

ATEZ ATEKO ZABOR BILKETA _____ **6. OR.**

ESPERIENTZIAK TRUKATZEKO TAILERRA _____ **8. OR.**

FRUTA ETA BARAZKIEN ONURAK _____ **10. OR.**

IGANDEAN, SANTO TOMAS AZOKA _____ **13. OR.**

JOSTAILUEI BURUZKO ERAKUSKETA _____ **14. OR.**

ASTEBURUKO FUTBOL PARTIDAK _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Beti(ra)ko arazoa

Zeruraino igo nintzen, ikusteko; infernuraino jaitsi nintzen ulertzeko. Hala ere berdin geratu nintzen. Portaerak ulertzen jakin gabe geratu nintzen. Zuzentasunaren parametroak berriz ere kale egiten zidaten, arrazoiak berriz ere, beste erantzun batzuen bidez konparatu behar nituen, faltsukeri eta interes ilunetan hain zuzen ere, tristea baina eraginkorra. Kondena ezaren aitzakietan dena balekoa omen eta eskubiderik oinarritzkoenak ere galtzeko arriskua zilegi geratzen da. Batzuei demokrazia azterketa jartzen zaie, alde zurretik zero batekin puntuatutako azterketa jarri ere, aztertzailak inongo azterketa edo froga gairiditu gabe dauden bitartean. Interes kolektiboak edo pertsonalak nahastu, zigorra mendekuaz jantzi, aurrena zigorra ezarri ondoren epaitu, gezurra edota faltsua dena egia bihurtu, arrazoietaz paso egin, asmoak zigortu, dena zaku berdinean sartu...

Gehienak ezikusiarrena egin, edota beste alde batera begiratu, "arazoa" ez konpontzeko "arazoaren" ondorioak arazo bilakatu "arazoa" bera iraun arazteko. Zergatik? Nola? Berriro ere zerura igo inpernura jaitsi eta berriz ere erantzunak faltsukerian eta interes ilunetan topa behar, hau nekea, eta gainera berriz ere

min gehiago, ezbehar gehiago. Baten bat edo batzuk honetaz bizi da eta berea mantentzearen egoera honen mantentzea absurdoraino luzatu behar.

Politikariak, lehen mailako izen entzutetsu eta ospetsu horiek, beren pentsioa hileetara joanez ziurtatu duten horiek, jauntxoak, handikiak, soldata onez birkazainez eta bestelako apaingarriz hornitutakoak. Jakintsu eta gizazalez mozorroturik beren handitasuna ez galtzearen besteen mina infinituraino luzatzera prest daudenak, soldata handiz ordainduak hogeita hamar edota dirudienek ezin urteraino luza dezakete "arazoa" beren estatus eroso mantentzearen. Nola liteke hainbeste urte pasata berdin edota okerrago jarraitzea? Zergatik ez dira zintzotzen eta, ezinezko lana badute ahal duenari utzi, edota konponketarik ez badu zer dela eta ez dute onartzen? Galdera honen erantzunaren bila berriz ere zerura igo eta inpernura jaitsi eta erantzuna ulertu ahal izateko gezurra eta faltsukeriarri begiratu behar. Nekagarria berriz ere. Dagoeneko San Pedrok eta Satanasek nire ingenuidadeaz parra egiten didate. Dirudienek ez ditugu bakarrik utziko, laster denak elkarrekin egongo gara eta. Ramon junai lekua eiten!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

"Zubietako makrokartzela" hitzaldia 1 - Usurbilgo jendartea 0

Hitzaldia: Zubietako Makrokartzela. Egungo gaia, interesantea dirudi.

Hizlariak: Cesar Manzanos eta Mikel Goenaga. Adituak, gaia ondo ezagutzen dute eta zuzeneko informazioa jakiteko aparteko aukera.

Tokia: Sutegin. Primeran! Etxetik hurbil.

Ordua: Azaroak 28, arratsaldeko 19,30etan. Fantastiko, ez dut inongo bilerarik. Beno Anderrek futbol entrenamendua, Olatzek etxeko lanak, bikotekidea okupatuta (ezin berarekin kontatu)... Ze arraio, moldatuko naiz!.

Jende ugari joango delakoan garaiz iristea erabaki dut ohitura dudana bezala. Hau dezepzioa! Hamabi pertsona areto gutzian eta horietako hiru antolatzaileak. Harridura oraindik ezin irentsirik

butakan esertzen naiz.

Gauza asko entzun ditugu eta guztiak aberasgarriak. Makrokartzela hauek erakitzeke atzean dauden multinazionalen interes ekonomikoak, gure lurraldetan kokaturik dauden espetxeen egoera prekariora, espetxe politika egoki baten inguruko azalpenak (planteamendu eta arrazonomendua), Madrilen hartutako erabakiak Euskal Herriko inongo errealitateari erantzuten ez diola, Eusko Jaurlaritzaren aginduz egindako azterketa baten berri ere plazaratu dute zigor-betezaren sistemari buruzkoa, Donostiako udalak Zubietan dituen asmoez hitz egin da, Eusko Jaurlaritzak Zubietan dituen lurrekin zer gertatuko den ere mahai gainean jarri da. Talde politikoen jarrera eta inplikazioak eta beste hainbat gairi buruz ere hitz egin da.

Zalantza eta galdera ugari erantzun ezin diren zenbait kontutan. Jendartea mobilizatuz eta gure nahiak eta indarrak elkar lanean batuz ekin beharko diegu gure aldarrikapenei, bestela, kokatu nahi dizkiguten Makrokartzela, Militarren kuartela eta errauskailua uste baino lehenago ikusiko ditugu ezarrita Zubietako lurretan. Berdin dio Donostian edo Usurbil aldean izan. Orduan beranduegi izango baita eskuak burura eramateko. Orain da garaia eta ekin diezaiogun lanari. Atzetik datozen belaunaldiak eskertuko baitigute. Makrokartzelaren aurkako plataformari "jarrai horrela" esanez eta Cesar eta Mikeli nire esker beroenak emanez bukatu nahi dut gogoeta hau.

Itziar Basterrika



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

Asteleheneko Ogasun Batzordean aurrekontu proiektua aztertu zen

Astelehenean bildu ziren Udaleko alderdi politikoetako bozeramaileak. Ogasuneko Informazio Batzorderako deia egina zuten eta ezohiko saioan, urte berrirako aurrekontu proiektua ezagutarazi zen.

EAE-ANVTik alkate Xabier Mikel Errekondo eta Juanjo Olaizola, Aralartik Joxe Ramon Furundarena, EAJ-PNVtik Iñaki Illarramendi, EAtik Luismari Ormaetxea eta PSE-EEko Amaia Goyaran bildu ziren pleno aretoan.

Udal gobernuak prestatutako aurrekontua ezagutzeko aukera izan zuten gainerako udal ordezkari politikoek.

Batzar irekia zen

Herritarrei ere aste hasieran jarritako hitzordura bertaratzeko deialdia egin zitzairen. Batzar irekia zen, eta ekarpenak egiteko aukera izan arren, saioa hasi zen unean ez zen inor hurbildu pleno aretora.



IRUDIAN, ASTELEHENEKO BATZORDEA.

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketako sari banaketa

Ostegun honetan, Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan irabazle izan direnei sariak banatuko zaizkie. Lehiaketa honetan 8 eta 16 urte bitarteko Usurbilgo haur eta gazteek parte hartzen dute, hauek adinaren arabera lau taldetan banatzen direlarik. 17:00etan Sutegi kultur etxe-ko auditorioan.

Soto del Real espetxean sartu dute Olatz Altuna

18/98 auziko epaileak bederatziz urteko kartzela zigorra ezarri zion Olatz Altunari. Soto Del Real espetxean sartu dute. Berari idazteko helbidea hau da:

Olatz Altuna
modulo 12

C.P. Madrid V (Soto del Real)
Carretera Comarcal 611, Km 37,6
28.770 Soto del Real (Madrid)

Marisa Alejandro, Avilara
Bestetik, Marisa Alejandro Batasuneko kidea, espetxez aldatu zuten aurreko astean:

Marisa Alejandro
Prision Provincial Apdo. 206
05194 Brieva - Avila

Ostegunean, lanuztea
Abenduaren 13an ordubeteko lanuztera deitu dituzte 18/98ko auzipetuek euskal herritar guztiak: eguerdiko 12:00etatik 13:00era.

Ika-mika !!

Animo Olatz

Zubietako Herri Batzarrak hase-erre ikusi du nola preso hartu eta eraman dizkiguten Olatz Altuna eta beste ehun erdi euskal herritar, 18/98 sumarioaren baitan.

Espainiar estatuak argi utzi du Euskal Herriko mugimendu politiko eta sozialak zigortuko dituela, jendea erakunde demokratikoetan parte hartzeraz bultzatzen duen bitartean: horra hor, kontraesana.

Herri Batzarrak gogor salatzen du Herria kriminalizatzeko aspaldiko joera hori, demokraziaz kontra-kontrakoa baita.

Eta, une latz hauetan, Olatzen senide eta adiskideekin bat eginez, animoak eman nahi dizkie, denon artean aurrera egin eta gure ondorengoei Euskal Herri hobea utz diezaiegun.

Zubietako Herri Batzarra

Ika-mika !!

Abenduaren 13an ordubeteko lanuztea

18/98 auzia abian jarri zutenetik ia 10 urte igaro direnean Espainiak inkeisizio gaurkotuak bere epaia eman du. Atxiloketak, hedabideak itxita, antolakundeak ilegalizatuta, torturak eta kartzela. Hori da auzi honek egun eskaintzen digun balantzearen irudia.

Epaiketa hasi zutenean oso argi esan genuen: epaiketa Euskal Herri osoaren kontrakoa zela. Auzipetuen eserlekuetan Euskal Herria zegoen ordezkartuta, Euskal Herriaren borroka epaitu nahi zuten Espainiak eta hori da zigortu dutena. Euskal Herriaren alde arlo askotan lana egindako eta egiten ari zen pertsonak eraman dizkigute; euskalgintzan, herrigintzan, kultur gintzan...

Gertatutako 46 atxiloketa hauen aurrean 18/98+ Lan Taldeak arbuio eta haserrea baino ezin ditu azaldu. Eskubide zibil eta politikoen aurkako eraso zuzena da; epaiketak iraun duen 17 hilabeteetan

salatzen aritu garenaren ondorio latza.

Atxiloketa hauek epaia ezagutu gabe eman dira; gure ustez aurrez idatzitako sententziaren erakusle baino ez dira. Ezin dugu aipatu gabe utzi pertsona hauei eragiten ari zaiena, gehitutako zigorra alegia.

Salatu nahi dugu baita ere atxiloketa hauekin ematen ari den joku mediatikoa. Berriro ere gertatu da komunikabide batzuek, auzipetuek eta hauen abokatuak baino informazio gehiago izatea.

Egoera honi eta datoztenei aurre egiteko irten gaitezen kalera eta, ez gaitetzen gera geldirik injustizi izugarri honen aurrean. Gogorazten dizuegu abenduaren 13an, ordubeteko lanuztea deitua dagoela, 12:00etatik 13:00era.

46 lagun horien artean da Olatz Altuna herrikidea, gure aldetik besarkadarik beroena helarazi nahi diogu berari eta familiari.

18/98+ lan taldea

Atez ateko bilketa martxan jarri nahi du Udalak 2008an...

Pasa den azaroa amaierako ple-noan, EAE-ANVko zinegotzi Imanol Azpirozek 2008ra begira zaborren kudeaketari lotutako egitas-moa aurkeztu zuen. Horietako bi neu-rrri, azpimarragarrienak herritarrei zuzenean eragingo dietelako, honakoak dira; atez ateko bilketa sistema abian jarri nahi du Udalak. Eta hor bildutakoa herrian bertan ireki nahi den konpost eta garbigunera eraman nahi da.

NOAUA. Lehen neurria, atez ateko bilketa izango da, ezta?

Imanol Azpiroz. Atez ateko sistema jarri nahi dugu bilketan. Zati guztiena egin daiteke, edo zati organikoa eta erreusarena. Azken aukera horrekin hasiko gara. Gaur egun, Udalak edukiontzi berdeetan bilketa masan egiten du. Bertan bildu ohi dena bitan zatituko genuke; batetik, organikoa dena eta bestetik, birziklatu litekeen erreusa biltzea.

N. Zabor poltsa uzterakoan, zer nolako aldaketa suposatuko die herritarrei?

I. A. Horren guztiaren diseinua egiten ari gara une honetan. Papera, kartoia eta beira jasotzeko dauden edukiontziek orain arte bezala jarraituko lukete. Baina gainerakoa zeharo aldatuko litzateke. Hasteko, bestelako edukiontziak kaletik kenduko lirateke. Zabor poltsa norberak bere etxe atarira jaitsi beharko luke. Udalak etxe bakoitzean ontzi batzuk jarriko ditu. Eta ontzi horietara jaitsi beharko da materia organikoa. Erreusa berriz, edozein poltsatan jaitsi ahal izan-



IMANOL AZPIROZ, ZINEGOTZIA ETA SAN MARKOS MANKOMUNITATEAN ORDEZKARIA.

go da. Gai organikoak ziur aski astean lautan jasoko dira, eta erreusa astean behin. Eta bilketa egiten den bakoitzean, badira zenbait zati berezi, nahiz eta erreusa izan, aparte birziklatu litezkeenak; umeen oihalak, konpresak...

aipatutako beste zati berezi hauek.

N. Horrekin zer lortu daiteke?

I. A. Momentu guztian familia bakoitza zer sortzen ari den identifikatuta egongo da. Horregatik diogu, ondo egiten duenari lagundu egin behar zaiola, eta gaizki egiten duenari bere jarrera aldatzea gomendatu behar zaio.

Orain arteko bilketa masiboan zegoen anonimotasuna desagertzen den unean, gauzak zeharo aldatuko dira. Bakoitzak zer atera duen jakin baitaiteke. Sistema honetan, bilketa da garrantzia gehien duena. Hori ondo eginez gero, konpostatzea erraza da. Hobe poltsik gabe eta ontzietan, prozesua erraztu eta konpostajearen kalitatea ziurtatu bailiteke.

IMANOL AZPIROZ

“Orain arteko bilketa masiboan zegoen anonimotasuna desagertzen den unean, gauzak zeharo aldatuko dira”

Gai organikoak biltzen diren egunetan, aparte, berezita bilduko lirateke

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

☎ 639 653 480

GARRAIOAK
Txema Azurmendi
kamioi-garabia

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

...eta bildutakoa herrian ireki nahi den konpost eta garbigunera eramanean

Etxez etxeko bilketa da Udalak urte berrirako aurreikusten duen lehen neurria. Bigarrena, bildutakoa norabait eramatea; herrian bertan eraiki nahi den konpost garbigunera berrira. Egingo diren aldaketa horietaz guztietaz informatzeko hainbat hitzaldi eskaintzeko asmoa du Udalak.

NOAUA. Atez ate bildutakoa herrian egingo den konpost gunera eramanean nahi da, ezta?

Imanol Azpiroz. Konposta gune bat soilik ez, bertan garbigune bat ere jartzeko baliatu nahi genuke. Bi gauza horiek lotu nahi genituzke; garbigunea, eta konposta gunea bestetik. Konpost garbi gune deituko diogu.

Herritar bakoitzak zaborraren lotutako leku bat, edozein zabor, izorratutako etxeko tresneria uzteko erreferentzia izan dezala herrian. Herrian bertan egongo direla kontenedore batzuk halako tresna horiek eramateko. San Markoseraino eramanean behar izaten denean, askotan hori ez da betetzen.

N. Neurri hauek martxan jartzeko epeez hitz egin genezake?

I. A. Aldunditik finantzaketa agindu digute. Orduan, data bat emateko egongo ginateke. 2008an hasi nahi genuke. Horretarako, hitzaldiak eskainiko dira. Jende guztiarengana iritsi beharra dago, atariz atari. Bando, hitzaldi, NOAUA! eta errausketaren aurkako plataformaren bidez, iritsiko gara guztiengana. Beste lekuetan konprobatu ahal izan dutenez, neurri horiekin egoera hilabete bateko

epean zeharo aldatzen da.

N. Epe luzerako asmoa, zaborra zero?

I. A. Epe luzera lan asko egin beharra dago, herritik hasita. Merkatalguneekin adibidez. Zabor mordo sortzen dute eta bestetik, eredu ere badira. Epe luzera bide hauek jorratzea errentagarriagoa zaiela konbentzitu behar ditugu. Hori lortzen dugun garaian, egingo den zati nagusi bat.

Bestalde, erreusa geratuko da, birziklatu ezin litekeen zatia. Material horiekin zer egin erabaki beharko da. Azpiegitura jarri horiek desagerrarazteko, zabortege bat jarri... Edo lana egin material horiek ordezkatzeko. 2020rako zaborra zero korrontean mundu mailan lanean dabilzan erakunde horiek hori bultzatu nahi dute, ekodiseinua lantzea, eta zaborra murriztea.

IMANOL AZPIROZ

“Bi gauza elkartu nahi genituzke; garbigunea eta konposta gunea lotu nahi genituzke. Konpost garbigunea deituko diogu”

N. Aldunditik erraustegiko lanak 2009an hasiko direla berretsi dute. Urtebete baino ez da geratzen beraz?

I. A. Argi eta garbi esan behar zaio jendeari, haiek zabaldu nahi duten mezua gezurra dela. Dena eginga dagoela eta alferrikakoa dela esaten dutenean, hemendik



BEIRA, PAPERA ETA ONTZIAK DRAIN ARTE BEZALA BIRZIKLATZEN JARRAITUKO DUGU.

aurrera erabakitako gauza bat balego bezala. Hori gezurra da. Lehen ere, horrelako majina bat esan dituzte. Hor, lan hori nahi adina erraztuko duten komunikabideak dituzte. Egia da, haiek badakite gauz mordo bat gaizki eginak dituztela, PIGRUGetik eta partzuergotik hasita. Benetan, auzitegietan jarritako helegiteekin zer gerta daitekeen, beldurrez akabatzen daude. Baina une honetan, politikari berriak daude eta inoiz baino gehiago sentitu behar dute jendearen presioa. Nik animatuko nituzte mobilizatzerara. Orain da garaia, gero alferrik izango da. Ahal bezain beste modu alternatibo martxan jarrita, orduan eta indar gehiago izango dugu esateko, posible dela errausketarik gabeko zabor kudeaketa egitea.

ARITZ GORRITI


Ilcapaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

KALITATERA
EUSKAL OKELA



CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

Esperientziak trukatzeko tailerra antolatu nahi dute Udal Gizarte Zerbitzuek

Esperientzia Eskola izeneko ekimenak 50 urtetik gorako herritarren gune irekia izan nahi du. Era guztietako esperientziak elkar trukatzeko. Baina baita kultura eta hezkuntza arloko gaiak ikasteko ere. Abenduaren 20an egingo da Esperientzia Eskola tailerraren aurkezpena Sutegin.

Esperientzia Eskola tailerraren helburuak hauek dira:

- Garapen pertsonala indartzea, esparru fisiko, psikiko eta sozialean gaitasunez, osasunez eta arrakastaz aritzeko.

- Prestakuntza. Gaur egungo gizartea ulertu eta aztertzeko moduak eta ezagutzak eguneratzea.

- Partaidetza. Pertsona talde honek gizartean eragin ahal izatea, eginkizun bizi, baliagarri eta pozgarria garatuz.

- Belaunaldi desberdinen arteko harremanak estutu eta harreman sozialak indartu.

Usurbilen martxan jarri nahi den esperientzia dagoeneko hainbat herritan egin da: Zarautzen, Orion, Lasarte-orian... Usurbilen, abendua-

ren 20an egingo da ekimen honen aurkezpena. Arratsaldeko 18:30ean Sutegin.

Tailerra, astean behin

Gutxienez 15eko talde bat osatu beharko da. Tailerra urtarrilean hasi eta ekainean amaituko litzateke. Eskolak astean behin bakarrik emango lirarteke eta eguna eta ordua izena ematen dutenek zehaztuko dute.

ESPERIENTZIA ESKOLA

“50 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago tailerra. Aurkezpena abenduaren 20an osteguna egingo da Sutegin, arratsaldeko 18:30ean”

Udal Gizarte Zerbitzuek antolatu dute ikastaro hau. Baina Mugabe elkarteak izango da Esperientzia Eskola tailerra aurrera eramango duena. Aitzibier Indart Mugabe elkarteak kide da. Berak azaldu digunez, “tailer hauek 50 urtetik gorakoei zuzenduta



ADINDUAK DRAINIK GAUZA ASKO
ESKAINI DIEZAIOTKE GIZARTEARI.

daude eta ez da alde zuretik titulaziorik behar”.

Usurbilen eskaini nahi den tailerra, “4-5 moduloetan antolatu dugu. Besteak beste, bizitzarako filosofiaz arituko gara, teknologi berrietara gerturatuko gara eta gizarte harremanak eta komunikazioa ere landuko dugu”, adierazi ditu Aitziber Indartek.

Tailer hauen inguruko informazio gehiago, abenduaren 20an osteguna, arratsaldeko 18:30ean Sutegin egingo den aurkezpenean.

Hasi da Mendi Astea

ABENDUAK 11, 12, 13

“Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketa”-ra aurkezturiko lanen emanaldia: Adarra, Abaguneak, Senegal, Amalurrari eskutik helduta, Tailandia, Txile: herrialde lehortua eta Udarregiko mendi taldearen irteerak. Sutegin, 20:00etan. Sarrera doan.

ABENDUAK 14 OSTIRALA

Metereologiari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Gloria Latasa. Sutegin, iluntzeko 20:00etan. Sarrera doan.

ABENDUAK 15 LARUNBATA

Mendi ibilaldia: Oiartzun-Arantza. (Izen-ematea Mendi Astea, abendua-

ren 11 eta 12an edo andatzake@usurbil.com helbidean). Irteera, goizeko 8:30ean kiroldegi aurretik.

Mendi ibilaldiaren ondoren, bazkaria izango da Arantzako Aterpetxean.

Bazkalostean, “Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketa”-ko sari-banaketa egingo da.

ABENDUAK 16 IGANDEA

Haurrentzako mendi-irteera. Irteera: goizeko 9:00etan kiroldegi aurretik.

Asegurua egiteko aukera

Mendiko aseguru egiteko bi aukera eskaintzen ditu Andatza Mendi Elkarteak: asteartero 20:30ean, uda-



IAZ, ORIENTAZIO IKASTARDAN
PARTE HARTU ZUTEN LAGUNAK.

letxe ondoan, DYArengo itzura azpiratu hurbilduta. Bestela, Mendi Astea atera daiteke, iluntzeko 19:00etik aurrera, Sutegin. Informazio gehiago, elkartearen e-postara idatzita eskura daiteke: andatzake@usurbil.com



bertatik, gertutik, hurbiletik, ZORIONA HURBILAGO ESALDIA OSATU

Eta irabazi Karibera bidaia bat.

Edo 500 €tako erosketa bale bat

b	e	r	t	a	t	i	k		,	g	e	r
t	u	t	i	k		,	h	u	r	b	i	l
e	t	i	k		,	Z	O	R	I	O	N	A
		H	U	R	B	I	L	A	G	O		





Gabonetako gehiegikeriak saihesteko, frutak eta barazkiak lagun

Gehiegikeri asko egiten den garaia gainean dugu. Neurri handirik jarri gabe, nahikoa jan eta edateko tartea hartzen da eguberrietan. Baina betikoa, zailena izan arren, norbere esku dago ohitura horiek aldatzea

eta horretan laguntzeko gairik ez da falta. Frutak eta barazkiak dira horren adibide nagusiak. Osagai horiekin egin daitezkeen sukaldeko errezeta merke, erraz eta goxoak asko dira.

Irensten dugunak eraginda, gorputzeko hainbat organoetan gai toxikoak sortzen dira. Sabela betetzeko jaten dugunak ere horretan zeresan handia du. Are gehiago, gehiegikeriak egiten diren garaietan, eta eguberrietan zer esanik ez. Hori dela eta, gorputza apur bat zaintzea inoiz ez dago soberan, eta datozen jai egunak kontuan hartuta, elikagai osasuntsuak dastatzeko aukera zabala dago. Merez du, geure buruari on egingo baitiote fruta eta barazkiek.

Toxikoak botatzeko, bikainak

Gorputzeko zenbait ataletan dauden toxinak ezabatzeko, frutak ezin egokia goak dira. Gogora dezagun, txanpainarekin eta kanpaien erritmora, mahats aleak irensten ematen diogu ongi etorria urte berriari. Gabonetako menuko osagai ezin hobea da. Mahats ale eraginkorrenak haziak dituztenak dira, bizitzaren germena baitute.

Bestalde, aditu batzuk, hiru eguneko proba bat egitea proposatzen dute; denbora tarte horretan, soilik garaian garaiko frutak jan eta ura edatea. Toxinak gaineatik kentzeko eta horren eragina nabarmentzeko ezin hobea omen da. Baina horrelako erabakiak eta asmoak, medikuen zaintzapean gauzatzea gomendatzen da. Are gehiago, gaixotasunen bat tartean dagoenean.

Frutekin batera, gure gorputza desintoxikatzen laguntzeko likido gaiak edatea, ura bereziki, ezinbestekoa da. Toxinak arrastaka eramaten laguntzen du eta. Pixak, arnasketak edota izerdiak egingo du gainerakoa.

Bultzada horretan ere lagun ezinhobeak dira barazkiak. Elikagai arrastoei bultzada egin eta horiek desegiteko aipose-



GEURE BURUARI ON EGITEN DIETE FRUTA ETA BARAZKIEK.

nak. Horien kasuan, sukaldean prestatzeko moduak baldintzatuko du neurri handian, haiek gure gorputzari eragin diezaioketen onura.

Koipe onak fruitu lehorretan

Fruitu lehorrek (almendrak, intxaurrak...) eta fruta lehortuak (orejoiak, arnaspasak eta mahaspasak) eguberrietako ohiko produktuak baino alternatiba gozo, atsegin eta osasungarriagoak dira.

FRUTA, OSASUGARRIA

“Frutekin batera, gure gorputza desintoxikatzen laguntzeko likido gaiak edatea, ura bereziki, ezinbestekoa da”

Gainera, ez da ahaztu behar, elikagai energetikoak ere badirela. Besteak beste, duten koipeagatik. Kontraesana dirudien arren, koipe mota ezberdinak daude; on eta txarrak. Modu batekoak edo besteko-

ak diren jakiteko, odolean kolesterol maila modulatzeko gaitasunari begiratu behar zaio. Fruitu lehorren kasuan, koipe “onak” dira, kolesterolaren maila plasmatikoa murrizten baitu. Eta bihotzerako osasungarria da.

Buruntzaldeko lehiaketa, azken txanpan

“Eska itzazu frutak eta barazkiak euskaraz” kanpainaren barruan, lehiaketa bat antolatu da Buruntzaldean. Animatu parte hartzera ondoko orrialdeko hizki zopa beteta, hauek azken egunak baitira!

Parte hartzeko beste modu bat kanpainarekin bat egin duten fruta eta barazki dendetako batera hurbiltzea da. Bertan, erosketen truke hizki sopa osatzeko esku orri bat jaso daiteke. Kasu horretan, aipatu saltokietan jarritako kaxetan utzi behar da orria abenduaren 17a baino lehen. Hilaren 18an egingo da zozketa eta saltoki bakoitzeko bi bezerok 50 euroko erosketa bono bana jasoko dute, aipatu dendatan xahutzeko. Orain arte, harrera ezin hobea izan du ekimenak.

Santo **Thomas** eguna



dastaketak,
lehiaketak,
azoka...

Herriaren eragileren artean
eta erabiltzailearen artean
dagoen distantzia murrizteko
erabilerak erabiltzen dira.



Abenduaren **16an**
igandegoizez



USUBILCO
SKKXRDQ
EGUNAREN
LAGUNAK

Noaua!!

www.noaus.com

Herri kirolak igandeko Santo Tomas azokan

Aurtengoan, abenduaren 16arekin egokituko da Santo Tomas eguneko azoka Usurbilen. Herritarrek eginiko sagardoa dastatu ahal izango dugu. Bertako ekoizleek egindako babarrunak ikusteko aukera ere izango da. Eta lehiaketa bidez aukeratuko dira aurtengo sagardo eta babarrun onenak. Lehiaketa eta gero, herri kirol saioa hasiko da frontoian: Jakoba Otegi harrijasotzailea eta Etxebeste eta Txapartegi aizkolariak.

Sagardo zein babarrun lehiaketetara aurkezteko epea abenduaren 11n amaitu zen. Baina gogora ekar ditzagun lehiaketan nondik norakoak.

Sagardo lehiaketa

Etxean edo baserrian egindako sagardoa bildu ohi da Santo Tomas azokan. Sagardotegiek, ordea, ezin dute lehiaketa honetan parte hartu.

Babarrun lehiaketa

Babarrun lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: itxura, kolorea, berdintasuna, dizdira, garbitasuna...

Sari ederrak

Babarrun zein sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:



NOAUA!K ANTOLATZEN DU URTERO
SANTO TOMAS AZOKA.

Irabazlearentzat, saria: 150 euro eta txapela.

Bigarren geratzen denarentzat: 80eur o.
Hirugarren saria: 50 euro.

Bukatzeke, Herri Kirolak

Aurtengo Santo Tomaseko azokan izango da bestelako ikuskizunik. Estrainekoz, herri kirol saio aparta ikusteko aukera izango dugu. Egurdiko 13:30ak aldera hasiko den saioan, Jakoba Otegi harrijasotzailea izango da. 16 urte ditu Aizarnako gazte honek eta 80 kg bola eta 100 kg errektangularrarekin arituko da.

Etxebeste eta Txapartegi aizkolariak ere lanean izango dira. Lehenbizikoak kana bateko enborra etzanda moztuko du eta bigarrenak kana bateko enborra zutikako modalitatean.

Antzerki Tailerraren emanaldia Sutegin
Abenduaren 14an ostirala, Santuenerako Antzerki Tailerrak emanaldia eskainiko du Sutegin, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Gabon kanten tailerra Santuenean

Abenduaren 15ean, arratsaldeko 18:30ean gabonetako kantuen ikastaroa eskainiko du Josune Aranburuk Santuenea elkartearen Ondoren, pintxo goxoak.

Gabonetako antzerkia

Abenduaren 20an, arratsaldeko 18:30ean, gabonetako antzerkia haurrentzat Santuenea elkartearen: "Lore eta Ikatz" du izena antzezlanak.

Jaiotza Lehiaketan izena emateko epea

hilaren 20an amaituko da

Santuenerako Jaiotza Lehiaketan 13 urte edo urte gutxiago dituzten gazteek bakarrik har dezakete parte. Lanak aurkezteko epea abenduaren 20an amaituko da.

Lehen saria 100 euro eta "oleoan" pintatzeko kutxatxoa. Bigarren saria, 50 eur o eta "oleoan" pintatzeko kutxatxoa. Hirugarren saria, 50 euro. Argibide gehiago: 943 367 262.

Gabon eskeko entseguak Zubietan

Ostiral honetan, abenduak 14, Zubietako eskola txikian bilduko dira arratsaldeko 19:00etan, Gabonetako kantak entseatzeko. "Gabon eguneko arratsaldean eskean ateratzen garenean itxuraz kantatzeko helburua dute entseguok. Animatu zaitzete eta etorri", adierazi digute Zubieta Lantzeneko kideek.

Larunbat honetan, bertso-afaria Agerialden

Aspaldiko partez, bertso-afari batean partehartzeko aukera izango dugu. Larunbat honetan Agerialden egingo den bertso-afarian, Fredi Paia eta Xabier Sukia bertsolariak arituko dira kantari.

Agerialdeko jangelan egingo den bertso-afaria gaueko 21:00etan hasiko da.

Hori bai, afarirako txartelak aldeztu aurretik erosi behar dira: 18 eurotan daude salgai, Lizardi dendan eta

Txiriboga tabernan.

Bertso-afariko menua hauxe izango da: patatak makailauarekin, saiheskia, mamia eta kafe k o n p l e t o a . Afalostean hasiko da Fredi Paia eta Xabier Sukiaren bertso-saioa.



XABIER SUKIA
BERTSOLARIA.

Santiagomendira ibilbidea

